

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ezagutzeko eta ekiteko



Amaia Alvarez Uria

Leslie Feinbergen *Stone butch blues* (1993) aurtengo maiatzetik dugu eskuragarri euskaraz Fermin Zabaltza itzultzaileari eta Katakarak argitaletxeari esker *Mari-mutil handi baten bluesa* titulupean. Jess Golberg fikziozko pertsonaiaren bizitza da liburu honetan deskubrituko duguna. Lesbiana (stone) butch edo mari-mutil (handi)a izandakoak lesbiana trans* edo emazte-gizon izanez bere gorputzean etxean sentitzea lortuko du.

Stone butch (edo mari-mutil handia) definitzeko J. Halberstam-en *Female masculinity* (1998) liburuan hurrengo topatu dugu: sexu eta genero sistema binarioak kolokan jartzen dituen genero *queer* bat da (maskulinitate femeninoaren adierazpena eta subjektibitate transgeneroaren arteko gorputz lesbianoa; inposatutako feminitate anatomikoaren ukoa egiten duena bere maitaleei sexualki ukitzerik ez utziz).

1970eko feminista lesbianoek 1950eko eta 1960ko hamarkadetako *butch-femme* rolak arbuiaitu zituzten heteropatriarkatuaren kopia zirela-koan. Hortaz, maskulinitate femeninoa lesbianen komunitatean debekatzeak *butch* batzuk lesbiana izaerarekin ez identifikatzera eraman eta transgenero kategoriara hurbil ditzake. Bidegurutze horretan topatzen dugu Jess. Itxura gogorra duen kide atsegina da. Mari-mutil izateko modu asko daudela esaten du, eta bera ez emakume eta ez gizon dela, mugak eta binarismoak gaindituz.

Mari-mutil handi baten bluesa

LESLIE FEINBERG

Itzultzailea: Fermin Zabaltza
Argitaratzailea: Katakarak, 2018

Leslie Feinberg idazlea (1949-2014).
AEBetako mari-mutil, lesbiana eta
transgenero aktibista.



Kanta tristea da bertan duguna (bluesa): lesbiana maskulinoen bizipen latzak eta zenbait zapalketa eta borrokaren testigantza (hainbat interseksionalitate izango dugu pertsonaie-tan). Ingurukoengandik biolentzia eta jazarpena jasango ditu, lesbofobia eta transfobia batez ere, eta desberdin/komplexu sentitzearen ondoriozko beldurra eta lotsa.

Askapen mugimendu batzuen hastapenak ezagutuko ditugu (Stonewall-en ingurukoak eta lehen sindikatuak AEBetan). Eta komunitatearen eta elkarlanaren beharra azpimarratuko ditu, bai LGTBQ mugimenduan, bai langileen borrokan.

Zapalketen aurkako nobela dela esan zuen 2003an (lesbianak, transak, langileak, beltzak, prostitutak dira pertsonaia nagusiak). Eta euskarazko bertsioaren hasieran hurrengo dio: "Zapalkuntza, erresistentzia eta harrotasuna bizi duen norbaiten ahotsa da". Oso liburu gomendagarria ezagutzeko eta ekiteko gogoia pizteko. ■